



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, XEDE DUENA IRUÑEKO UDALAREN GAZTERIAREN MAHAIKO ARAUDIA ALDATZEAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREN ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEN IRITZIA JASOTZEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunen webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ordenantza onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Dokumentu honen xedea da galdera horiei erantzutea eta Iruñeko Udalaren Gazteriaren Mahaiko araudia aldatu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.

2002an sortu zen Gazteriaren Mahaia (urte horretatik antzina ez dago erreferentziarik artxiboan paperean) Iruñeko Udalaren Elkargunea-Sektoreko Partaidetza Organoa da, eta xede du hiriko gazteekin zerikusia duten udal-gaien kudeaketan partaidetza bideratu, erraztu eta sustatzea. Bere xede nagusia Iruñeko gazteek hiriko bizitzan parte har dezaten sustatzea da, bai eta hiriko gazte-sektorea osatzen duten eragileen eta entitateen artean udal-politikak elkarrekin sortzea, haien gainera gogoeta eta azterketa sustatzea ere.

Araudi hau 2019ko abenduaren 24an onetsi zen eta 2020ko urtarrilaren 11n sartu zen indarrean. Indarrean sartu ondoren, 2021eko maiatzaren 19an aurreko Gazteriaren Mahaiaren osatze-saioa deitu zen; osieran alaketak egon ziren arren, indarrean egon zen 2023ko ekaina bitarte, izan ere, araudiaren 11. artikuluan ezarritakoarekin bat: *Herritarren eta erakundeen ordezkarien txandakatzea bermatzeko, karguak lau urtetik behin berrituko dira, Udaltzatzen alaketarekin batera.*

Hurrengo mahaia 2024ko azaroaren 20an osatu zen. Azken osatze-prozesu horretan zehar, urrian eta azaroan, baita aurten ere, hutsune eta inkoherentzia batzuk agertu dira araudian, eta horiek zaildu egiten dute Mahaia egoki osatzea eta egunez eguneko herritarren partaidetzako organo gisa.

Ibilbide horren ondoren egungo araudian aldaketa batzuk planteatu dira Herritarren Partaidetzako Araudian ezarritako arauarekin bat, ahalbidetuko dutenak malgutasun handiagoa



edukitzea Mahaia deitzeko orduan, eratzeko orduan edo mahaia osatzen duten pertsona eta entitateen profilak definitzen direnean.

Azken batean, xedea da aldaketa hauei esker errealitateari egokitutako parte-hartze arinago bat erdiestea Gazteriaren Mahian, funtzionatzeko eremu berri bat ezarrita gazteek parte-hartze zuzena izan dezaten.

b) Araudia aldatzeko beharra eta aukera.

III. Iruña Gaztea Plana 2022ko abenduan onetsi zen, eta jasotzen dituen ekintzen artean daude, besteak beste, hura finkatu eta garatzea; halaber, Gazteriaren Mahaia ezagutarazteko hedapen-kanpaina bat egitea; xede nagusia duena Gazteriaren Mahaia sendotzea gazteen parte-hartze eta lan-gune organo gisa.

Aurkezten diren aldaketen xedea da organo hau arin eta eraginkorragoa izatea, parte hartzeko gune gisa indartzeko, hori erdiesteak eragin positiboa izan baitezake, orainaldian; eta etorkizunean, hiriko gazteen errealitatea aldatzea, eta gizartearena, oro har.

c) Arauaren helburuak.

- Gazteriaren Mahaiko egungo araudia aldatzea, batez ere honako atal hauek:
 - o Osaera.
 - o Mahaiko lehendakariordearen funtzioak definitzea.
 - o Iraupena.
 - o Saioen aldizkakotasuna.
 - o Deialdia: eratzeko quoruma.
 - o Erabakiak hartzea: beharrezko quoruma aldatzea.

d) Egoten ahal diren konponbide alternatibo erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Ez da jasotzen konponbide alternatibo erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

PARTE HARTZEKO EPEA

2025eko irailaren 19tik urriaren 3ra, biak barne.

EKARPENAK BIDALTZEKO

juventud@pamplona.es